

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Arazoa

Gaur egungo gizartean bi arazo nagusi daude, eta gure proiektuaren helburua biak batera konpontzea da. Alde batetik, abandonatutako maskoten arazoa dago. Txakur eta katu asko kalean edo babeslekuetan bizi dira, arreta eta maitasun nahikorik gabe. Bestetik, bakardadea gero eta ohikoagoa da, batez ere adineko pertsonen artean. Pertsona askok bakarrik bizi dira eta ez dute eguneroko harremanik beste pertsonekin edo animaliekin.



Aurrez azaldu dugun bezala, gure zerbitzuak bi arazo hauei erantzun zuzena ematen die. Maskoten kafetegi sozial baten bidez, abandonatutako animaliei espazio segurua, zaintza eta aukera berriak eskaintzen dizkiegu. Aldi berean, bakarrik dauden pertsonak, bereziki adinekoak, animaliekin denbora pasatzeko aukera dute, konpainia sentituz eta bakardade sentrazioa murriztuz.

Horrez gain, arazo bat ere badago animalia bat adoptatu nahi duten pertsonentzat: askotan ez dakite zer nolakoa den eguneroko bizitza maskota batekin. Gure proiektuak aukera ematen du maskotekin harreman zuzena izateko, konpromiso handirik hartu gabe, eta horrek adopzio arduratsuagoa sustatzen du.

Zergatik da ideia berritzailea?

Gure ideia berritzailea da, aurrez azaldu dugun bezala, hainbat kontzeptu desberdin bateratzen dituelako zerbitzu bakarrean. Alde batetik, Japonian ohikoak diren animalien kafetegiak eredu hartzen dugu, baina beste herrialdeetako errealitatera egokituta. Bestetik, helburu sozial argia du, ez da soilik aisialdirako negozio bat.

Berrikuntza nagusia da gure zerbitzua ez dagoela soilik bezero arruntentzat pentsatua, baizik eta kolektibo zehatz bati ere zuzenduta dagoela: bakarrik dauden adineko pertsonak. Aurrez esan dugun bezala, pertsona hauek maskotak "alokatzeko" aukera dute, denbora jakin batez konpainia izan dezaten, baina ardura iraunkorrik hartu gabe.

Gainera, berritzailea da abandonatutako maskotek protagonismo nagusia izatea. Gure negozio eredu ez da animalien erabilera hutsean oinarritzen, baizik eta haien ongizatea eta adopzioa sustatzen. Horrela, aisialdia, gizarte-ekintza eta animalien babesa uztartzen ditugu espazio bakarrean.

Funtsezko faktoreak

Aurrez azaldu dugun moduan, gure balio-proposamena hainbat faktore garrantzitsutan oinarritzen da, bezeroentzat zerbitzua erakargarria eta fidagarria izateko.

Lehenik, prezioa faktore garrantzitsua da. Gure zerbitzuak prezio arrazoitsuak ditu, adineko pertsonentzat eskuragarriak izateko pentsatuta. Adibidez, maskotekin egoteko orduko prezioa neurrizkoa da, eta bonu edo deskontuen bidez are eskuragarriagoa bihurtzen da.

Bigarrenik, kalitatea aipatu behar da. Aurrez azaldu dugun bezala, bai lokala bai zerbitzua kalitatezkoak izango dira. Espazioa garbia, atsegina eta ondo zaindua izango da, eta maskotek behar duten arreta profesionala jasoko dute.

Hirugarrenik, segurtasuna funtsezko faktorea da. Maskoten gunea ondo bereizita egongo da, material egokiak erabiliz, eta higiene-neurri zorrotzak beteko dira. Horrek lasaitasuna ematen die bai bezeroei bai haien familiei.

Azkenik, diseinua eta kokapena ere garrantzitsuak dira. Aurrez esan dugun bezala, lokala Bilboko erdigunean egongo da, erraz iristeko modukoa. Diseinua beroa eta atsegina izango da, etxe-giroa sortzeko, bezeroek denbora lasai eta gustura pasa dezaten.